
4. DIRU-ITURRIAK

Panpin Askeak proiektua balioen hezkuntzan, gizarte-sentsibilizazioan eta elkartasun humanitarioan oinarritzen den lana da. Egiatan, beharrezkoa da hasieratik finantzaketa-iturri sendo eta anitzak izatea. Horregatik, gure ONGk erakunde publiko nagusien laguntza bilatuko du, hots, Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Barakaldoko Udalako laguntza eskatuko du. Institutuzio publiko horien dirulaguntza-deialdi ofizialetan parte hartzeak eta gure jarduerak modu garden eta profesional batean gauzatzeak aukera emango digu enpresa serio eta profesional gisa aurkeztu ahal izateko. Horrez gain, erakundeen konfiantza lortzeak gure proiektuaren sinesgarritasuna handitzen du emaila partikularren eta enpresa laguntzaileen aurrean.

Era berean, finantzaketa publikoak gure proiektuaren oinarri estrategikoa osatzen badu ere, ezinbestekoa da hasierako gastuak estaltzeko bestelako laguntza osagarriak ere antolatzea. Horien artean egongo dira, esaterako, gure boluntarioen eta laguntzaileen ekarpenak, enpresek eskainitako babesak eta komunitateak antolatutako ekimen solidarioak. Berez, baliabide guztiek batera proiektuaren lehen fasea indartzen dute: panpinen prototipoak prestatzea, material didaktikoa ekoiztea eta lehendabiziko jarduerak antolatzea. Azken batean, aitorpen instituzional horrek beste finantzaketa-iturri batzuetarako sarbidea erraztu dezake.


Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Barakaldoko Udalatik jaso ditzakegun dirulaguntzak hurrengoak dira:

<https://docs.google.com/document/d/1NkaRIgingKtLKFPZjCKbHEYQg6M43Qa7kgpvoEugs2c/edit?tab=t.0>

Horrez gain, gizarte-ekonomiarekin, gazteen ekintzailetzarekin, ingurumen-jasangarritasunarekin eta gizarte-berrikuntzarekin lotuta eskatzen dituzten laguntzetan parte hartu nahi dugu. Adibidez, 2030erako Ingurumen Esparru Programa (ingurumen-iraunkortasunarekin lotuta) edo 2025-2028rako Gizarte Berrikuntzako Plana eta 2030erako Agenda (gizarte-berrikuntzarekin lotuta) izan daitezke interesa dugun planak.

Ondorio gisa, proiektua finantzatzeko erabil daitezkeen iturriak askotarikoak eta sendoak dira, eta hori gure ekimenaren iraunkortasuna bermatzeko funtsezkoa da. Maila desberdineko erakundeen parte-hartzeak (udala, foruak eta entitate autonomikoak) gure proiektuak balio sozial handia duela eta politika publikoen lehentasunetara egokitzen dela erakusten du. Gainera, gure ONGk jaso ditzakeen dirulaguntzen mota handiek urteko aurrekontura egokitzeko gaitasuna adierazten dute, malgutasuna eta bideragarritasun handia eskainiz. Horri gehituta, dirulaguntza errepikakorrek edo ekitaldi desberdinetarako laguntzak izatea lortzen baditugu, gure proiektua segurtasun handiagoz planifikatu eta garatu ahal izango dugu: panpina gehiago fabrikatu, kanpaina berriak diseinatu, egitura indartu eta gure eragina handitu. Azken batean, erakundeen dirulaguntzek oinarri sendoa

eskaintzen dute gure ONGa eraikitzeko, eta horrek aukera emango digu salmenta edo dohaintza puntualen mende soilik ez egoteko.



Asian adierazitako taula eta grafikoan azaldutako datuak oinarrian hartuta, gure elkarteak 105.000 euroko urteko aurrekontua lor dezake 2025ean. Banaketa horrek erakusten du finantzaketa-eredua sendoa eta errealista dela. Gure ONGaren diru-iturriak bost multzotan banatzen dira: Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, salmenten dirua, Barakaldoko Udala, dohaintzak eta beste batzuk. Espainiako Gobernua ekarpen garrantzitsua da (%41,9), Kulturako eta gizarte-sentsibilizazioko programen bidez 20.000–50.000 euro inguru eman ditzakeelako. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Hezkuntza Saila gure bigarren iturri nagusia, diru-sarreraren %32,3 ordezkatzeko, balio demokratikoak (elkartasuna, giza eskubideak, eta abarrek) eta bakearen kultura sustatzen dituzten hezkuntza-programetarako dirulaguntzen bidez, urtean 5.000–25.000 euroko tartearekin. Salmenten dirua gure panpin solidarioen salmentatik dator eta gure diru-iturriaren %8,9 suposatzen du (10.000–12.000 euro). Barakaldoko Udalak (%6,5) balio-heziketako eta sentsibilizazioko tokiko proiektuak babesten ditu, eta 6.000–12.000 euro arteko ekarpena egitea espero da. Dohaintzak (%2,4) komunitateak eta partikularrek egindako ekarpen txiki zuzenak dira, eta 2.000–3.000 euro inguru izan daitezke. Azkenik, Beste batzuk kategorian (%8,1) Europako programak, fundazio pribatuak, enpresa babesletzak eta ekimen solidarioak sartzen dira, urtean 5.000–20.000 euro artean lor ditzaketenak. Banaketa honek erakusten du gure elkarteak iturri publikoak nagusiak dituela, %74 inguru, baina ere iturrien aniztasuna mantentzea garrantzitsua dela, diru-sarrera propioak eta dohaintzak barne, proiektuak egonkortzeko eta aurreikusitako finantzaketa oinarri sendo batekin planifikatu ahal izateko.

